



BERRIMATIKA

Auto elektrikoentzako karga azkarreko zerbitzugunea Araban

TAMARA QUINTANA. LAUDIO

IBILI izeneko enpresak auto elektrikoak azkar kargatzeko zerbitzugunea eraiki du Gasteiz ondoan, Lopida herrian. Sei minutuan 150-200 kilometro inguruko autonomia lortuko dute autoek zortzi euroren truke.



Lopidako zerbitzugunea.

“Eguzki-umeen” kasu bitxia

ANA GOMEZ ALDAY. OLABARRI

“Eguzki-umeen” kasu bitxia gaixotasun arraroa da 9 eta 13 urteko bi anaia pakistandarrek pairatzen dutena. Eguzki-umeak deitzen zaie egun-argiz bizimodu arrunta daramatelako, baina, eguzkia ezkututzen denean, mugitu ezinik geratzen direlako. Maiatzean eraman zituzten ospitalera, hainbat proba egitera. Haurrak Pakistango hegoaldean bizi dira, Main Kundin herrian hain zuzen ere.



Aurkikuntza arkeologikoa Euskal Herrian

RUBEN JIMENEZ. GASTEIZ



Euskal Herriko aztarnategi arkeologikorik handiena aurkitu dute, 70 irudirekin

Duela 14.000 urte, labar-pinturen multzo bat egin zuten Atxurrako kobazuloan, hain zuzen, 300 metroko sakoneran. Atxurrako kobazuloan, Berriatuan (Bizkaia) dago. Balio handiko aztarnategi arkeologiko bat da. Aurtengo udan aurkitu da, Diego Garate arkeologoa espedizioaren buruan zela. Aurkikuntza hau oso garrantzitsua da, Euskal Herrian Paleolitiko labar-irudi gehien dituen aztarnategia delako, eta beste aldetik, Santimamiñeko pinturak aurkitu zirenetik, aurkikuntza handiena delako.

Kobazulo barruko aurkikuntzak

Barruan, 14 panel margotutan, 70 irudi baino gehiago ikusi ditzakegu. Hainbat animalia irudiak daude; batik bat, zaldi eta bisonteenak. Ondoren, irudiekin batera, silexezko hainbat lanabes miretsi ditzakegu. Santimamiñeko irudien garaiak dira, eta grabazio-teknikari dagokionez, zenbaitetan, pintura beltza da, eta okerrago kontserbatuta daude. Ziur aski, arte paleolitikoari buruzko esku-liburu guztietan agertuko da. Bakarrik arazo bat dago, publikoa ezin da sartu kobazuloan, grabatuak zaindu egin behar direlako, eta sarbidea oso arriskutsua delako. Hala ere, 3Dko teknikak prestatzen ari dira, jendeak erreproduzioak ikus ditzan.

Auto elektrikoentzako karga azkarreko zerbitzugunea Araban

TAMARA QUINTANA. AUDIO

IBILI izeneko enpresak auto elektrikoak azkar kargatzeko zerbitzugunea eraiki du Gasteiz ondoan, Lopida herrian. Sei minutuan 150-200 kilometro inguruko autonomia lortuko dute autoek zortzi euroren truke.



Lopidako zerbitzugunea.

1886. urtean sortu zuten auto elektrikoak etengabeko garapena izan du. Abantaila handiak dituzten auto elektrikoek: ez dute kerik isurtzen ezta zaratarik egiten. Baina zerbitzugune gehiago behar omen dituzte. Horregatik, Gasteiz ondoan (dagoen) Lopida herrian, IBILI izeneko enpresak, REPSOLen eta Energia Euskal Erankudearen (EEE) laguntzarekin, karga azkarreko zerbitzugune berri bat eraiki dute edozein motatako auto elektrikoak kargatzeko. Antolatua eta errealista izan behar duen mugikortasun elektrikorako trantsizioan beste urrats bat da zerbitzugune honen eraikuntza.

Karga azkarreko lehen puntua da Espainiako Estatuan, eta, jabeek diotenez, lehenengoetarikoa Europan. Europa osorako proiektu baten barruan, mota honetako 14 zerbitzugune irekiko dituzte Europan zehar. Sei minutuan kargatzeko aukera ematen duen zerbitzuguneak, eta kokapen estrategikoa du: Frantziatik 130 kilometrora eta Madriletik 330 km-ra dago. Horrela, birkarga bakarrarekin bi estatuen arteko ibilbidea egin daiteke, 150-200 kilometrotako autonomia lortzen baitute autoek.

Lau zutoinetan banatuta, 700 kilowatteko potentzia du zerbitzuguneak. Horrela, aldi berean, bi edo lau auto kargatzeko aukera ematen du; 350 edo 175 kilowattekin, hurrenez hurren. Auto elektrikoaren beste abantaila, elektrizitatea petrolioa baino merkeagoa izatea da. Beraz, gure poltsikoak eskertuko digu. 8 euro besterik ez du balio gure autoak kargatzea Lopidan.

Aurkikuntza arkeologikoa Euskal Herrian

RUBEN JIMENEZ. GASTEIZ

Euskal Herriko aztarnategi arkeologikorik handiena aurkitu dute, 70 irudirekin, eta bakarrik, 3Dko teknikekin ikus-ditzakegu



Duela 14.000 urte, labar-pinturen multzo bat egin zuten Atxurrako kobazuloan, hain zuzen, 300 metroko sakoneran. Atxurrako kobazuloan, Berriatuan (Bizkaia) dago. Balio handiko aztarnategi arkeologiko bat da. Aurtengo udan aurkitu da, Diego Garate arkeologoa espedizioaren buruan zela. Aurkikuntza hau oso garrantzitsua da, Euskal Herrian Paleolitiko labar-irudi gehien dituen aztarnategia delako, eta beste aldetik, Santimamiñeko pinturak aurkitu zirenetik, aurkikuntza handiena delako.

Kobazulo barruko aurkikuntzak

Barruan, 14 panel margotutan, 70 irudi baino gehiago ikusi ditzakegu. Hainbat animalia irudiak daude; batik bat, zaldi eta bisonteenak. Ondoren, irudiekin batera, silaxezen hainbat lanabes miretsi ditzakegu. Santimamiñeko irudien garaikideak dira, eta grabazio-teknikari dagokionez, zenbaitetan, pintura beltza da, eta okerrago kontserbatuta daude. Ziur aski, arte paleolitikoari buruzko esku-liburu guztietan agertuko da. Bakarrik arazo bat dago, publikoa ezin da sartu kobazuloan, grabatuak zaindu egin behar direlako, eta sarbidea oso arriskutsua delako. Hala ere, 3Dko teknikak prestatzen ari dira, jendeak erreproduzioak ikus ditzan.

“Eguzki-umeen” kasu bitxia

ANA GOMEZ ALDAY. OLABARRI

“Eguzki-umeen” kasu bitxia gaixotasun arraroa da 9 eta 13 urteko bi anaia pakistandarrek pairatzen dutena. Eguzki-umeak deitzen zaie egun-argiz bizimodu arrunta daramatelako, baina, eguzkia ezkutatzan denean, mugitu ezinik geratzen direlako. Maiatzean eraman zituzten ospitalera, hainbat proba egitera. Haurrak Pakistango hegoaldean bizi dira, Main Kundin herrian hain zuzen ere.



Gaixotasun arraroak jota dagoen anaietako bat.

Pakistanen bost seme-alaba dituen familia bat aurkitu dugu. Horietako bik gaixotasun arraroa pairatzen dute. Gainontzeko kideek ez dute gaixotasunik pairatzen.

Eguzki-loreen antzera. Eguzki izpien “ babespean” bizimodu arrunta egiten dute **Shoaid Ahmed eta Abdul Rasheed** Pakistango anaiek; eguzkia ezkutatzan, ordea, geldituta geratzen dira. Jaiotzetik dute gaixotasuna bi umeek, eta gaua den bitartean, ezin dute ez jan, ez edan, ezta mugitu ere. Mian Kundin herrian (Pakistan Hegoldea)bizi dira, eta han “eguzki-umeak” bezala ezagutzen dituzte.

“Jaiotzetik daude gaixo. Eguzkia ezkutatzan, geldituta geratzen dira. Espero dut larter gauetz ere ibiltzeko modua izatea” adierazi dio Mohamed Hashim bi umeen aitak kasua ezagutzera joandako Berri-Berriz albiste agentziako kazetariari.

Askotan joan dira ospitalera. Azken aldia otsailean izan zen. Erietxean egun batzuk eman zituzten gaixotasunaren azterketa egiteko. Aitaren hitzetan, “Diagnostikoa ez zen argia izan”.

Erronka medikuentzat

Kasuak oihartzun handia izan du hedabideetan. Horrek interes handia sortu du Pakistango medikuengan. Bi umeen kasua ikertzeko prest agertu ziren. Maiatzean eraman zituzten bi anaia sendategira proba ezberdinak egitera

“Erronka Itzela da guretzat. Ez dugu gaixotasuna ulertzen. Proba batzuk egin ondoren jakin dugunez, neurotransmisoreak ematen badizkiegu euren egoera hobetu egiten da” azaldu du medikuak.

Guztira, 27 profesional ari dira Shoaid Ahmed eta Abdul Rasheed anaien kasua ikertzen. Eta nazioarteko adituei laguntza eskatu behar izan diete.

Azkenean, gaixotasunaren jatorria genetikoa omen da eta tratamenduaren helburua umeen bizikalitatea hobetzea litzateke. Horrek esan nahi du, beharrezkoa dela umeak atzerrira bidaltzea tratamendu egokia jasotzeko. “Ez dugu dirudik. Beste herrialde batera eman behar badituzte, ezingo gara haiekin joan”, aitortu du aitak.